

KARMELDARREN “ERRESTAURAZIO” HARRIGARRIA MARKINAN (1868)

Markinako Karmeldar Oinutsen komentua, XVII. mendeko azken hamarkadan sortu zen, Ignazio Munibe eta Axpek, Peñafloidako Kondeen seme eta Ziortzako Kolegiatako abadeak, egindako dohaintzatik. Santa Teresarenganako debozioak eragin zion horretara.

Hiribilduko udala fundazioaren alde agertu zen hasierahasieratik eta 1690eko abenduaren 23an eman zuen horretarako baimena. Protagonista guztiak, Ignazio Munibe Ziortzako abadea, A. Nikolas Gizakundekoa eta Udala bera bat etorri ziren, fundazioa hiribilduaren “on espiritualerako” izango zela eta mesede handia egingo ziela hari eta inguruko herriei esatean. Inaugurazioa 1691ko otsailaren 2an izan zen. Hurrengo urtean, 1692an, prioretxe bihurtu zen, A. Nikolas priore zela; 7 fraidez osatzen zen komunitatea; urte gutxi barru, 1699an 12 izango ziren; gehituz joango ziren erlijiosoak ondorengo urteetan; XVIII. mendean 30 inguru izan ohi ziren.

Eliza bikaina, Anaia Markos Santa Teresarena trazatzailearen gidaritzapean eraikia, 1724ko maiatzaren 26an inauguratu zen. Ordurako Karmengo Amaren, San Joserren eta Santa Teresaren debozioa inguru osoan zabaltzeko gune bihurtua zen.

Karmengo fraideen bizitza aurrera joan zen denbora one-tan eta txarretan, adibidez Frantsestean (1808-1814), edo ge-roagoko gobernuaren elizaren aurkako dekretuak zirela eta.

XVII. eta XIX. Karmengo komentua beste karmeldarren komentuen arteko bat izan zen, besteen antzekoa, normala... Baina Komentu honen aparteko berezitasuna geroago izango zen, 1868tik aurrera. Berezitazuna ikuspegi desberdinetatik ikusita.

1868ko abuztuaren 14a Karmel Teresiarraren historiako datarik goragarrienetakoa da; data hau Bizkaiko herri bati loturik geldituko da, Markinari, eta haren historiako egintza garrantzitsuenetakoa ekarriko digu orain gogora: karmeldar bizitzaren berrezarpena Euskal Herrian eta Espainian, beste nazio batzuetan ere berebiziko eragina izan zuena.

San Joakim Probintzia edo Euskal Herriko Probintziako Karmel Teresiarraren errestituzioaren eta zabalkunde indartsuaren gune nagusia izateak “errestituzio” hau zertzelada ugariagok azaltzera garamatza¹.

¹ Honetaz ik.: SILVERIO DE S.TERESA, *Resumen histórico de la restauración de los Carmelitas Descalzos en España, 1868-1918*, Burgos, 1918, 289 or.; Idem, HCD (*Historia del Carmen Descalzo en España, Portugal y América*), t. XIII, Burgos, 1946, 218-397; Julen URKIZA, *Karmeldarrak Markinan (1691-1991). Historia eta agiriak*, Larrea-Zornotza, 1992, 118-241, 775-833 (Karmel-Sorta, 5). Geroagoko argitalpenen artean, ik: *Remplantación...* Tomo I: *Comienzos en Marquina. Bajo la amenaza de nuevas expulsiones (1867-1870)*, Roma 2007, 145-219 (MHCT [Monumenta Historica Carmeli Teresiani], 24); Domingo A. FDEZ. DE MENDIOLA, *El Carmelo Teresiano en la historia. Una nueva forma de vida contemplativa y apostólica. Cuarta parte. Apertura a la misión en todo el mundo (1841-2014)*. Volumen V: *Restauración del Carmelo Teresiano (1841-1874)...*, Roma 2007, 89-194; Julen URKIZA – Luis BARAIAZARRA, *Karmeldarrak Euskal Herrian. Nafarroako San Joakim karmeldar probintzia (XII-XX. mendeak)*, Markina-Xemein 2010, 79-98 (Karmel Lekukoak-5); Ángel SANTESTEBAN, *Un hombre cabal. P. Domingo de San José O.C.D. General de la Orden y restaurador de la misma en España*, Burgos 2008, 200 or.; Ildefonso MORIONES – Domingo A. FDEZ. DE MENDIOLA, *Un hito en la historia del Carmelo Teresiano. Marquina 1868*, Pamplona 2018, 544 or. Julen URKIZA, *Marquina promotora de la unión de las dos congregaciones del Carmelo [Teresiano] (1873-1875)*, Monte Carmelo 107 (1999) 195-241. Gai honetaz oiñarizko lana “Remplantación...” laburtutako izenaz aipatzen doguna da: *Reimplantación del Carmelo Teresiano masculino en Espa-*

1. Protagonista batzuk edo aktore garrantzitsuenak

"Errestaurazioaren" historia egitean kontaketan zehar ageri ziren egile nagusiak aipatu beharra dago. Fundatzaileen artean goi-goian jarri behar dugu Kandido Gaitan (1818-1882), Villafrancako kondea², mugimendu honen bihotza, baina beronen ondoan jarri beharko genuke Madrileko ministerioetan laguntzaile handia izan zuen José Luis Nacarino Brabo eta Barrera (1819-1893)³; erlijiosoen aldetik, berriz, A. Domingo San Joserena (Arbizu Munarriz, 1793-1870), Italiako Kongregazioaren Jenerala, Garesko semea⁴. Hala ere eguneroko lanean

ña. Documentación y correspondencia epistolar de los fundadores (1867-1882). Edición preparada por Julen Urkiza. 4 vol., Roma 2007 (MHCT, 24-27).

² Arrasaten jaio zen 1818ko urriaren 3an. Lehen ikasketak Bergarako Seminarioan amaitu ondoren, 17 urte zituela Parisera eta Alemaniara joan zen, meatzetako ingeniari ikasketak eginez. Itzuli zenean Tomasa Jusue eta Paterninarekin ezkondu zen 1842ko abuztuaren 24an. 1845eko Gipuzkoako Batzar Nagusietan Diputatu Nagusi hautatua izan zen. Bergarako Erret Seminarioko Batzarreko buru izan zen. 1851n senatari Gipuzkoa ordezkatzuz. Senatuan Aita Santuaren alde agertu zen. Ik. JUAN VICENTE DE JESÚS MARÍA, *Maravillosa Restauración del Carmelo Reformado en España (ik. Reimplantación..., IV. t., 567-568 or.)*.

³ Cádizko semea, Filosofiako ikasketak Córdobako Giza Zientzietako Erret Ikastetxean egin zituen, eta Manilako Unibertsitatean legeetako ikasketak, gero Madrilén amaitu zituenak. Epaila sartu zen Espainiako hainbat hiritako auzitegien buru eta Manilako Auzitegian epaile izanez. Espainian Gortee-tako diputatua izana zen, Ongintza eta Osasuneko, Lekuko Administra-zioako, Itsasoz handiko ministerioan Eliz Arazoetarako zuzendari orokorra, geroago ministerio honetako idazkari orde. Ik. SILVERIO DE S. TERESA, *Resumen histórico...*, 33-34; Julen URKIZA, *Karmeldarrak Markinan*, 122.

⁴ Julen URKIZA – Antonio UNZUETA – Angel FERNÁNDEZ DE MENDIOLA, *Provincia carmelitana de S. J. N.*, or. 197, 199-200, 210-212, 222-223, 596; Abbé CASTELLS, *Restauration des Carmes Déchaussés en France sous la haute protection de Son Éminence le Cardinal Donnet et biographies du T.-R. P. Dominique de Saint-Joseph, Général de l'Ordre, et du R. P. Hermann, supérieur des Carmes d'Angleterre*, Bordeaux 1865, 51 or.; ALEJO LUIS DE SAN JOSÉ, *Elogio fúnebre histórico del M. R. P. Fray Domingo de San José, General de los Carmelitas Descalzos y restaurador de su Orden en Francia. Pronunciado en la iglesia del noviciado de Broussay para la ceremonia de la traslación y de la*


errestaurazioa gauzatzen gailendu zirenen artean, hauek ditugu gorengo mailan: A. Manuel Santa Teresarena (Elosegui Albizu, 1817-1889), ekintzaile handia eta Lazkaoko semea⁵, eta mugimenduaren gidaria eta lehen nagusia izan zen A. Pedro Jose Jesus Mariarena (Alkorta Elordi, 1822-1892)⁶, markinarra; bi hauei A. Migel Hirutasunarena (Kalle Bengoa, 1811-1887), Aulestiko semea⁷ gehitu behar zaie.

inhumación de su cuerpo en el cementerio de este convento el 11 de agosto de 1870, Pamplona 1896 45 or.; JUAN VICENTE DE JESÚS MARÍA, *Maravillosa Restauración del Carmelo Reformado en España*, (ik. *Reimplantación...*, IV. t., 561-578 or.); SILVERIO DE S.TERESA, *Resumen histórico*, 89-90 or.; HCD, t. XIII, Burgos 1946, 240-282, 322-332; Henri BLANC, *Un gran religieux. Le R. P. Dominique de St-Joseph. Restaurateur des Carmes en France en 1830 [1839]*, Carpentras [1922], 228 or.; BONIFACIO DE SANTA TERESA, *Centenario de un insigne Carmelita: Padre Domingo de San José (1799-1870)*, BOPN 6 (1971, n.76) 201-218; Julen URKIZA, *Karmeldarrak Markinan...*, 123-124. or.; Joaquín María MAQUIRRIAIN, *Historia de los conventos...*, 167-169. or. Ángel SANTESTEBAN, *Un hombre cabal. P. Domingo de San José O.C.D. General de la Orden y restaurador de la misma en España*, Burgos 2008; Ikus bedi A. Pasquak Jesus Mariarenak idatzitako gutun interesgarria ere A. Domingoren heriotzaz 1870eko abuztuaren 11an (Ik. *Reimplantación...* doc. 376).

⁵ Aita Manueli buruz, ik.: *Reimplantación...*, doc. 595, 644; JUAN VICENTE DE JESÚS MARÍA, *Maravillosa Restauración del Carmelo Reformado en España*, (ik. *Reimplantación...*, IV. t., 566-567); SILVERIO DE S. TERESA, *Resumen histórico*, 26-27...; Julen URKIZA – Antonio UNZUETA – Ángel FERNÁNDEZ DE MENDIOLA, *Provincia carmelitana de San Joaquín de Navarra. Carmelitas en Euskal Herria (Siglos XIII-XX)*, Vitoria-Gasteiz 2005, 197-198, 205-215. or.; Julen URKIZA, *Karmeldarrak Markinan...*, 122-123. or.; Julen URKIZA, *Los Carmelitas en Larrea. Tres siglos de vida e historia (1712-2012)*, Larrea 2012, 186-196, 421-422. or.; UNZUETA – IZPURA, *Catálogo...*, nº 1018 (A. UNZUETA – L. M. IZPURA, *Catálogo de los religiosos Carmelitas Descalzos de la Provincia de San Joaquín de Navarra (1868-2000)*, Roma 2001).

⁶ Ik. JUAN VICENTE DE JESÚS MARÍA, *Maravillosa Restauración del Carmelo Reformado en España*, (*Reimplantación...*, IV. t., 564-566. or.; SILVERIO DE S.TERESA, *Resumen histórico...*, 65-66. or.; HCD, XIII. t., Burgos, 1946, 262-282, 292-303, 353-355...; Julen URKIZA, *Karmeldarrak Markinan...*, 124. or.; UNZUETA – IZPURA, *Catálogo...*, 1186. zk.

⁷ Julen URKIZA, *Karmeldarrak Markinan...*, 182-246. or.; UNZUETA – IZPURA, *Catálogo...*, 1101. zk.



*Kandido Gaitan Aiala, Villafrancako kondea,
Errestaurazioko protagonista oso garrantzitsua*


Lau erlijioso hauek, beste batzuekin batera, Frantziako Karmengo Ordenaren errestaurazioa burutu zuten; 1841etik 1859ra bitartean hamar fundazio egin ziren (Le Broussey, Montigny, Agen, Carcassone, Montpellier, Bagnères de Bigorre, Pamiers, Rennes, Lyon, Tarasteix, Saint Omer). 1858an

130 erlijioso ziren Frantzian, haietatik 64 penintsulakoak (43 Euskal Herrikoak).

2. Historia baten odisea (1867-1875)

1867an A. Manuel Santa Teresarenak, Agenen priore zenak, Le Broussey-tik Lazkaoraino lagundu zion Fabian San Lauren-direna bere iloba nobizioari; 1867ko martxoaren 7an izan zen. Lazkaoko antzinako karmeldarren komentua bisitatu zuen eta bere herrian Ordena errestauratzeko gogo biziak hartu zuen.

Martxoaren 11n Gasteizerantz abiatu zen Diego Mariano Aguacil gotzaina bisitatzeko; Lazkaon karmeldar bizitza erres-



Domingo San Joserena (Arbizu), karmeldarren jenerala

tauratzeko gogoia agertu zion. Gotzainak baietz erantzun zion, eta 80 libera ere eman zizkion bidaiarako⁸.

Madrilera eldu zenean Valmedianoko markesa bisitatzerantz joan zen, berau baitzen Lazkaoko komentuarien jabea; Markesak komentua utziko ziola hitzeman zion; gehiagotan ere izan ziren elkarrekin.

Baina "errestaurazioaren" etorkizunerako erabakigarriena Kandido Gaitanekin izan zuen bilera gertatu zen. Bordelen ikasten zeuden Roman eta Jesusa Kondearen seme-alaben gutun bat eraman zion honi⁹. Betiko lagun min bihurtu ziren: barruan espiritu eta gogo bera zuten batak eta besteak. Kondeak Elisabet II.a Erreginarekin egoteko aukera lortu zion. Erreginak onartu zuen Karmel Teresiarra errestauratzeko asmoa, eta Kondeari esan zion asmo hau aurrera eramaten saia zedila¹⁰.

Kondea berehala bildu zen Lorenzo Arrazola, Grazia eta Justizia ministroarekin. Itsasoz haraindiko ministroari Lazkaon Itsasoz haraindiko misioetarako Karmeldar Oinutsen ikastetxe bat eraikitzeke eskaera egitea erabaki zen.

A. Manuelek eskaera ofiziala aurkeztu zion Erreginari¹¹. Egun batzuk lehenago, 1867ko apirilaren 5ean, Lazkaoko udalak eta inguruko beste zortzik Karmeldar Oinutsak Lazkaon ezartzeko eskatu zioten Erreginari¹². Eskaera honi apirilaren 13ko Gipuzkoako diputatu eta senatariena gehitu zitzaion, hauen artean ziren Villafrancako kondea eta Valmedianoko markesa¹³ ere.

A. Manuelek Carcasonnera joateko A. Maldonado (karmeldar kanporatuen buru zana) agurtu zuen egun berean, apirila-

⁸ Madrilerantzako bidaia honi buruz Aita Manuel berak idazi zuen: ik. *Reimplantación...*, doc. 753.

⁹ Ik. *Reimplantación...*, doc. 127, eta 525, 579 or.

¹⁰ Ik. *Reimplantación...*, doc. 525.

¹¹ Ik. *Reimplantación...*, doc. 6.

¹² Ik. *Reimplantación...*, doc. 4.

¹³ Ik. *Reimplantación...*, doc. 8.



*Pedro Jose Jesus Mariarena (Alkorta),
Errestaurazioko protagonista
nagusienetako bat*

ren 21ean, honek José Nacarino Brabori idatzi zion esanez, geldiaraz zezala A. Manuelen dosierra, harik eta berak oharpen batzuk egin arte¹⁴. Eta argi eta garbi adierazi ziren horretaz zeuden iritzi kontrajarriak. A. Maldonadok apirilaren 27an adierazi zion, Itsasoz haraindiko misioetarako ikastetxe bat eraikitzeke eskaera egina zela; eta Italiako Karmeldarren Kongregazioaren Jeneralak Lazkaon fundazioa egiteko eskaera egin bazuen ere, Klemente VIII.aren Brebeak, 1600eko azaroaren 13ko “In apostolicae dignitatis” brebeak¹⁵, Espainian hori egitea debekatu egiten zuela¹⁶.

Kondeak ausarki egin zion aurre A. Maldonadoren jokaera horri¹⁷. Estatuko Kontseiluko lehedakaritzak Itsasoz haraindiko agintariei entzuteko zioen; eta A. Ma-

¹⁴ Ik. *Reimplantación...*, doc. 14.

¹⁵ Ik. MHCT, 4, 624. dok.

¹⁶ Ik. *Reimplantación...*, doc. 17.

¹⁷ Ik. *Reimplantación...*, doc. 2, esaterako adierazgarria da esaldi hau: “le he dicho que haré la contra a cualquiera fundación que no sea enteramente en el espíritu de la Santa y que no tema, que reunidos los PP. exclaustrados en 1836 han de producir conventos suyos distantes en espíritu del que tubo la grande santa Teresa”.

nuelen dosierra aurrera eramán zuten; A. Maldonadorená, berriz, gerogorako gelditu zen¹⁸. Martxoaren 24an Estatuko Kontseiluak fundazioaren aldeko ebazpena eman zuen¹⁹. Itsasoz haraindiko ministerioak igorri zuen A. Domingo San Joserenarentzako dekretua, honi maiatzaren 7an²⁰ "Kubako uhartera misiolariak bidaltzeko beronen Ordenako ikastetxea eraikitze-ko baimena emanez".

Alabaina Valmediano-ko markesak iritzia aldatu zuen eta ez zuen utzi berea eta bere anai-arrebena²¹ zen Lazkao-ko komentuan fundazioa egiten.

Markinan

Elizaren aldetik eragozpen handi bat zegoen fundaziorako: Klemente VIII.aren aipaturiko brebea. A. Domingo San Jose-rena Pio IX.a Aita Santuarengana joan zen eta arazo hori agertu zion. Honek 1868ko ekainaren 5eko dataz Klemente VIII.aren



*Manuel Santa Teresarena (Elosegi),
Errestaurazioko protagonista
nagusienetako bat*

¹⁸ Ik. *Reimplantación...*, doc. 30.

¹⁹ Ik. *Reimplantación...*, doc. 61.

²⁰ Ik. *Reimplantación...*, doc. 74.

²¹ Ik. *Reimplantación...*, doc. 66.

brebea baliogabetzen zuen agiria eman zion, baina Markinako fundazioa egiteko bakarrik balio zuen agiri hark²².

Markinako komentuaren alde inork gogotsu jokatu bazuen, hori A. Pedro Jose Jesus Mariarena markinarra izan zen. Hala adierazi zien Bordeletik Kondeari²³ eta A. Jeneralari²⁴. Markinako pertsona pisudunen artean ikusi zuen gauzak nola zeuden, eta erantzun hau hartu zuen: “hiriko udala Karmeldarrak etor zitezen irrikaz zegoela eta horretarako eman beharreko urratsak emateko prest zegoela”; hauxe bera zioen Peñafloredako kondeak ere²⁵.

A. Jeneralari aurrea hartu zion Markinako udalak eta, hura etorri orduko, uztailaren 2ko bilkuran, hiriarentzat interes handikotzat jotzen zuen eta komentu osoa A. Domingo San Joserenaren²⁶ esku uzteko prest agertu zen (eskola eta ospitalea handik kendurik).

A. Jenerala Bergaran zen ordurako eta, A. Pedro Jose lagun zuela, Gasteizerantz abiatu zen, Gotzaina, Diego Mariano, bisitatu eta Markinako fundaziorako baimena eskatzeko. Gotzainak berehala eman zion baimena, hau da, uztailaren 10ean²⁷.

Baimen hori aldean zuela Markinarantz jo zuen, eta uztailaren 11n Karmelgo komentuaren eskaera egin zion Udalari. Udalak hilaren 2ko bilkuran ebatzitakoa berretsi zuen eta Ogasun Ministerioari A. Jeneralak nahi zuen eskaera egitea erabaki zuen²⁸. Uztailaren 13an igorri zizkion Pedro A. Garamendik Villafrancako kondeari Ogasun Ministerioari igorri zitzaion azalpena eta Udalaren akta erregistratua²⁹. Eta 14an Go-

²² Ik. *Reimplantación...*, doc. 85.

²³ Ik. *Reimplantación...*, doc. 90.

²⁴ Ik. *Reimplantación...*, doc. 99.

²⁵ Ik. *Reimplantación...*, doc. 101.

²⁶ Ik. *Reimplantación...*, doc. 122.

²⁷ Ik. *Reimplantación...*, doc. 128.

²⁸ Ik. *Reimplantación...*, doc. 131.

²⁹ Ik. *Reimplantación...*, doc. 137.



Markina-Xemeingo karmeldarren komentua gaur egun

bernadore³⁰ jaunaren bidez Ogasun Ministroarentzat beste azalpen bat igorri zion. Batzar Nagusiek beren aldetik Markinan Karmeldarren misioetako ikastetxea ezartzearen aldeko ebazpena onartu zuten uztailaren 17an³¹.

A. Jenerala eta A. Pedro Jose Madrilera joan ziren kudeaketak egitera; uztailaren 15ean iritsi ziren. A. Jenerala Nuntzioagana joan zen, Alejandro Franchirengana, La Granjara³². Nuntzioak gutunak eman zizkion, Karmeldar misiolarien fundazioaren aldeko gutunak Jose Nacarino-rentzat³³ eta Erreginarekin egoteko aukera ere prestatu zion.

³⁰ Ik. *Reimplantación...*, doc. 138.

³¹ Ik. *Reimplantación...*, doc. 136.

³² Ik. *Reimplantación...*, doc. 147.

³³ Ik. *Reimplantación...*, doc. 151.

Hainbat joan-etorri eta gorabeheratan A. Jenerala³⁴ gaixotu egin zen. Orduan A. Pedro Josek eskatu zion Villafrancako Kondeari kudeaketa haietan berari laguntzeko joan zedila Madriler³⁵. Eta Kondea biharamunean iritsi zen³⁶. Nuntzioak, Alejandro Franchik, uztailaren 28ko gutunean, A. Domingoren³⁷ asmoen alde egitea gomendatu zion Orovio jaunari, Ogasun ministroari.

Uztailaren 29an irten zen hain biziki itxarotzen zen Ogasun Ministerioaren Errege agindua Itsasoz haraindiko ministroarentzat; horrela jakinarazten zitzaion Estatuko jabetzaren zuzendari nagusiari 1868ko maiatzaren 6ko Errege-agindua, Karmeldarrei Itsasoz haraindiko misiolarien ikastetxea eraikitze baimena ematen ziena; era berean adierazten zen, Markinako Karmelgo antzinako komentua³⁸ gozamen gisa uzten zitzaielako ebazpena.

Zailtasunak gainditurik, Markinara itzuli ziren Karmelgo komentuarien jabe egiteko. Jabetza hartzearen akta dugu, uztailaren 14 honetakoa: Markinan Itsasoz haraindirako³⁹ Karmeldar misiolarien ikastetxea eraikitzea baimentzen zuen 1868ko abuztuaren 3ko errege-ofizioa irakurri ondoren, “Leída que fue en alta voz por mí el infrascrito escribano y notario público la preinserta comunicación de orden del señor alcalde, pidió a su merced el nominado Fr. Domingo de San José que se le diera posesión de este citado convento, y en efecto se la confirió haciéndole entrar en su yglesia, donde enseguida dicho R. P. Fr. Domingo de San José en acción de gracias al Todo Poderoso..., quedando de este modo el repetido Fr. Do-

³⁴ Ik. *Reimplantación...*, doc. 753.

³⁵ Ik. *Reimplantación...*, doc. 157.

³⁶ Ik. *Reimplantación...*, doc. 161.

³⁷ Ik. *Reimplantación...*, doc. 171.

³⁸ Ik. *Reimplantación...*, doc. 174.

³⁹ Ik. *Reimplantación...*, doc. 184.

mingo de San José en quieta y pacífica posesión de este espresado convento y su yglesia”⁴⁰.

Komentua utzi eta kanporatzea

Lehen komunitatea A. Pedro Jose prioreak eta beste hamar fraidek osatzen zuten. Baina 1868ko urriaren 15ean⁴¹ handikiro inaugurazioa egiteko prestaketetan zihardutenean, iraileko iraultza etorri zen, eta harekin batera berriro ere komentua utzi eta kanporatzea. Urriaren 29an itxi egin zen komentua eta erlijiosoak sakabanatu. Batzuk Markinan gelditu ziren, eta beste batzuek Donibane Lohizunen aurkitu zuten bizilekua⁴².

Baina azaroaren 23a baino lehen, komentuan sartu ziren isilean; eta Bizkaiko gobernadorearen, Martin Tosantos-en, laguntzaz komentuko giltza lortu zuten alkatearengandik⁴³. Eragozpen sozio-politikoak izan arren, komunitatea finkatuz joan zen, eta nobizioak hartzen hasi ziren: zortzi nobizioko talde batek 1870eko azaroaren 24an egin zuen profesia⁴⁴.

Berriro kanporatzeko agindua

1869an itxi egin zuten Bermeoko Frantziskotarren komentua, eta 1870ean egoera politikoak txarrera egin ondoren, Karmeldarrak beldurrez beterik zeuden beste kanporatze baten arrisku larria gainean baitzuten. Markinako egoera txartuz joan zen, “El Imparcial” egunkariak irailaren 16an eta “Pensamiento español”ek 17an Karmeldarren aurka gezur beltzak ai-

⁴⁰ Ik. *Reimplantación...*, doc. 194.

⁴¹ A. Pedro Jose Jesus Mariarenak idatzitako gutunak (Markina, 1868-IX-4; 1868-IX-19): Ik. *Reimplantación...*, doc. 203, 219.

⁴² Ik. *Reimplantación...*, doc. 241.

⁴³ A. Pedro Jose Jesus Mariarenak egindako gutuna (1868-XI-23). Ik. *Reimplantación...*, doc. 243.

⁴⁴ Ik. *Reimplantación...*, doc. 461.

ratu ondoren, hau da, Karmeldarrak karlisten matxinada egosten zen gunea zirela zabaldu zuten⁴⁵. Bizkaiko diputazioa Karmeldarren alde irten zen⁴⁶. Baina hauek komentua uztera behartuak izan ziren, baina Galiziara joateko aukera ematen zitzaien⁴⁷. Berriro ere Kondeak lan ederra egin zuen Madrileko politika giroetan eta ministerioetan⁴⁸. Gobernuarekiko eztabaida hauetan lekuz aldatzea atzeratu egin zen, eta Karmeldarrek Markinan jarraitu zuten.

Komunitateak 1870eko abenduan 20 nobizio⁴⁹ zituen, 1872ra arte 40 nobizio⁵⁰ hartu ziren. Beraz, fundazio berria egin beharra zegoen, eta leku bila hasi ziren eta horretarako batzuekin eta besteekin hitz egiten: Bilboko Abandon, Frantziako Tolosan, Santanderren, Ano-Santoñan eta Ruiloban fundatzeko ahaleginak egin ziren; baina ondorio onik gabe.

Ordena osoaren batasuna

Fundazio berriak egin ahal izateko, egoera sozio-politikotik zetorren eragozpen larria zuten aurrean, gerra karlistaren areagotzea eta abar, baina baita gorago aipatu denez, beste bat ere oso garrantzitsua: Klemente VIII.ak 1600eko azaroaren 13an eman zuen brebea.

1874an Markinako Karmeldarrek bi Kongregazioen batasuna eskatu zioten Pio IX.a Aita Santuari; Espainiako eta Italiako⁵¹ kongregazioak batean biltzea; eskaera horrekin batera

⁴⁵ Ik. 1970eko irailaren 17ko larunbateko *El Imparcial* Madrileko egunkaria 3. or. Ik. *Reimplantación...*, doc. 386.

⁴⁶ Ik. *Reimplantación...*, doc. 386.

⁴⁷ Ik. *Reimplantación...*, doc. 413.

⁴⁸ Ik. *Reimplantación...*, doc. 405, 418, 421, 441....

⁴⁹ Ik. *Reimplantación...*, doc. 464.

⁵⁰ Ik. *Reimplantación...*, doc. 578.

⁵¹ Ik. *Reimplantación...*, doc. 791.

zihoan Urgel-go⁵² apezpikuaren gutuna, eta Donnet kardinalaren, Bordeleko artzapezpikuaren⁵³ beste bat.

Baina gauzak ez zihoazela aurrera ikusirik, A. Pedro Josek Villafrancako kondeari eskatu zion berbera etor zedila Erromara proiektua aurrera eramateko. Kondeak bere alaba Maria Dolores Gaitan de Ayala bidali zuen. Arazo Berezie-tako Kongregazioaren idazkaria zen Marini monsinorearekin pertsonalki harremanetan jartzea nahi zen, eta batez ere Alessandro Franchi kardinalarekin. Markinako komunitateak gutun luze bat idatzi zion Marini monsinoreari 1874ko urriaren 18an⁵⁴. Hilabete geroago Kondeak idatzi zion Donibane Lohitzunetik Franchi kardinalari⁵⁵, eta baita honen idazkari Raimundo Campa-ri ere arazoa zertan zen azalduz, eta laguntza eskatzen zitzaion⁵⁶. Honek itxaropena eman zion, Franchi kardinalak arazoa gogoz hartu zuela esanez⁵⁷. 1874ko abenduaren 23an A. Jeronimo Sortzez Garbiarenak, Ordenako Prokuradore Jeneralak, gai horri buruzko azalpen luzea igorri zion Marino Mariniri⁵⁸.

1875eko otsailaren 12an heldu zen azkenik "Lectissimas Christi turmas" Konstituzio apostolikoa eta horrela, 275 urte geroago, Karmeldar Oinutsen Espainiako eta Italiako bi Kongregazioen batasuna erdietsi, Markinako Karmeldarren eskaerari erantzunik⁵⁹.

⁵² Ik. *Reimplantación...*, doc. 792.

⁵³ Ik. *Reimplantación...*, doc. 795.

⁵⁴ Ik. *Reimplantación...*, doc. 811.

⁵⁵ Ik. *Reimplantación...*, doc. 818.


⁵⁶ Ik. *Reimplantación...*, doc. 825.

⁵⁷ Ik. *Reimplantación...*, doc. 830.

⁵⁸ Ik. *Reimplantación...*, doc. 823.

⁵⁹ Ik. *Reimplantación...*, doc. 833.

3. Markinako Karmeldarren eragin zabala: Mugimendu berria Euskal Herrian, Espainian eta munduan



A. Jeronimok eman zion berri ona Markinako prioreari, eta filosofia eta teologiako ikasleentzat⁶⁰ etxe bat bila zezala eskatu zion. A. Pedro Josek Fidela Olaeta andrearen, **Larre**ako komentuaeren jabearen, onarpena erdietsi zuen han fundazioa

⁶⁰ Ik. *Reimplantación...*, doc. 830 (1875-III-11).

egiteko⁶¹; eta baita Gasteizko gotzainaren baimena ere 1875eko azaroaren 7an⁶². 1876ko maiatzaren 25ean onartu zioten Kontseilu Jeneralak Larreako fundazioa eta nobizio-etxea Markinatik Larreara aldatzea⁶³.

Ekainaren 22an sei fraide mezako joan ziren Markinatik Larreara komentuaren jabetza hartzera, haien artean zen A. Manuel Santa Teresarena; ekainaren 30ean bozketa egin zen; A. Migel Hirutasunarena (Calle Bengoa) aukeratu zuten nagusi eta biharamunean egin zen kargu-hartzeko ekintza⁶⁴.

Bikario Probintzialak, A. Pedro Josek, abuztuaren 18a Larrean igaro zuen nobizioekin; hauengan "itxaropen handia zuen"⁶⁵. 1876ko abenduan 18 nobizio ziren⁶⁶.

Bokazioen gorakada harrigarria izan zen: 1876tik 1880ko abendura bitartean bakarrik 119 nobizio igaroko ziren Larreatik: 54 bizkaitarrak ziren (1882ko amaieran 93 ziren jadanik), 15 nafarrak, 8 gipuzkoarrak, 7 Burgoskoak, 5 Arabakoak eta Castellón de la Plana-koak, 4 Soriakoak, eta gutxiago beste probintzietakoak⁶⁷.

Kontseilu Jeneralak 1876ko ekainaren 8an onartu zuen **Avilako** fundazioa⁶⁸. Horrela A. Manuel Santa Teresarena Avilara⁶⁹ bidali zuten abuztuan La Santa-ko⁷⁰ kapilau izateko. Abuztuaren 13rako han Avilan⁷¹ zeuden harako izendapena zutenak, eta abuztuaren 14an⁷² eman zioten hasiera komentuko bizitzari.

⁶¹ Ik. *Reimplantación...*, doc. 887 (1875-XI-5).

⁶² Ik. *Reimplantación...*, doc. 888.

⁶³ Ik. *Reimplantación...*, doc. 967.

⁶⁴ Ik. *Reimplantación...*, doc. 993, 1002 (1876-VII-24).

⁶⁵ Ik. *Reimplantación...*, doc. 1015 (1876-VIII-17).

⁶⁶ Ik. LFKA (Larreko Fraide Karmeldarren Artxiboa, Amorebieta-Etxano), A-VII-3.

⁶⁷ Ik. LFKA, A-VII-1, A-VII-2, A-VII-3, A-VIII-1.

⁶⁸ Ik. *Reimplantación...*, doc. 981 (1876-VII-19).

⁶⁹ Ik. *Reimplantación...*, doc. 1008 (1876-VIII-10).

⁷⁰ Ik. *Reimplantación...*, doc. 1015 (1876-VIII-17).

⁷¹ Ik. *Reimplantación...*, doc. 1017 (1876-VIII-24).

⁷² Ik. *Reimplantación...*, doc. 1011.

Basamortuko kasua pixka bat ezberdina zen. 1876ko maiatzean fraide mezako eta nobizio batzuk zeuden⁷³. Haiek Erromako Jeneralaren mendean egon nahi zuten: komunitatea antzinako Espainiako Kongregazioko bi fraide mezaokoz, hiru anaia ez-mezaokoz eta bost nobizioz osatzen zen⁷⁴. A. Manuel Santa Teresarenak **Las Palmas**-ko Basamortuko (Castellón)⁷⁵ bikario-agiria jaso zuen abenduaren 8an. Fundazioa bere aro berrian 1876ko abenduaren 22an⁷⁶ izan zen.

1876ko ekainaren 8an Nafarroako San Joakim *Erdi-Probin-tzia* sortzea erabaki zen Erroman; komentu hauek osatzen zuten: Markinakoak, Larreakoak, Avilakoak eta Las Palmas-ko Basamortukoak, Markinako nagusi eta Bikario Probintziala A. Pedro Jose Jesus Mariarena⁷⁷ zela.

Hurrengo urtean, 1877an, beste bi fundazio egin ziren. A. Pedro Jose Itsasoz haraindiko ministroarekin harremanetan jarriz zen 1877ko martxoaren 11n eta Burgosko komentuan fundazioa egitearen egokitasunaz mintzatu zitzaion; Ministroa aldedeko agertu zen⁷⁸. **Burgosko** artzapezpikuak, Anastasio Rodrigo Yusto-k, biziki nahi zuen, eta Ministroari⁷⁹ idaztekotan izan zen. Burgosko komunitatean 1877ko abuztuaren 24an⁸⁰ eman zitzaion hasiera karmeldar bizitzari.

Geroago **Segoviako** komunitatea (1877-XII-03)⁸¹ eta Alba de Tormes-koa (1878-III-19)⁸² ezarri ziren.

⁷³ Ik. *Reimplantación...*, doc. 966.

⁷⁴ Ik. *Reimplantación...*, doc. 975, 981 (1876-VI-19).

⁷⁵ Ik. *Reimplantación...*, doc. 1072 (1876-XII-9).

⁷⁶ Ik. *Reimplantación...*, doc. 1078.

⁷⁷ Ik. *Reimplantación...*, doc. 975.

⁷⁸ Ik. *Reimplantación...*, doc. 1120 (1877-III-12).

⁷⁹ Ik. *Reimplantación...*, doc. 1128 (1877-III-25).

⁸⁰ Ik. *Reimplantación...*, doc. 1154.

⁸¹ Ik. *Reimplantación...*, doc. 1179.

⁸² Ik. Alba de Tormesko Fraide Karmeldarren Artxiboa, C-8: *Acta cap. com.*, 1. or.

Fundazioak egitea hil edo bizikoa zen, eta Larreako nobizio-etxea bikaina eta ugaria eta Markinako ikastetxea ere halakoxea izan arren, fundazioak egiteko eskaintzak asko ziren eta Bikario Probintziala, A. Pedro Jose, hainbeste eskariri ezin erantzunda zebilen¹.

Bikario Probintziala, A. Pedro Jose, fundazio-asmoetan murgildurik zebilela (eta fundazioak egiteko eskaintzak asko izanik), bultzada handia izango zen 1879ko abenduaren 16.a., egun horretan Ordenako Kontseilu Jeneralak Probintzia mailara jaso zuen Nafarroako San Joakim, ordura arte Erdi-Probintzia baitzen. Nagusi berriak aukeratu ziren. A. Pedro Jose² hautatu zuten Probintzial.

Ondorengo urteetan bost fundazio egin ziren: Begoña (Bilbo, 1880), La Habana (1880), Kalahorra (1883), Valentzia (1885), Madril (1888).

1882ko apirilaren 28tik maiatzaren 3ra bitartean egin zen Probintziako lehen Kapituluak: A. Pedro Jose izan zen hautatua, 12 bototik 11rekin³.

Genovan 1889ko maiatzaren 15ean egin zen Kapitulua Jeneralean, Euskal Herriko edo Nafarroako San Joakim Probintziaren hazkundera ikusirik, bitan banatzea erabaki zen. Horrela Gaztela Zaharra⁴ Probintzia berria sortu zen. Komentu hauek ziren Probintzia berria osatzen zutenak: Las Palmas-ko Basamortukoa, Valentziakoa, Segoviakoa, Alba de Tormeskoka, Habanako eta Avilako bikaritzak. Nafarroako San Joakim Probintziari ezarri zitzaizkion Bizkaia, Gipuzkoa, Araba, Nafarroa, Logroño, Burgos, Soria, Santander eta Asturiasko probintzia

¹ Ik. *Reimplantación...*, doc. 1294.

² Ik. *Reimplantación...*, doc. 1369.

³ Ik. Fraide Karmeldarren Artxibo probintziala (Gasteiz), *Acta. Cap. Pr.*, 4^a-5^a.

⁴ Ik. *Acta Capituli Generalis O.C.D. Congregationis S. Eliae et totius Ordinis*. Volumen IV (1801-1895), Roma 1993, 169, 208-209 (MHCT, 15).

zibilak; orduko komentuak hauek ziren: Markina, Larrea, Burgos, Begoña eta Kubako bikaritzakoa⁵...

Gero herri hauek izan ziren Euskal Herriko karmeldarren fundazioak egin ziren tokiak: Gasteiz, Alesbes (Villafranca), Corella, Iruñea, Herrera, Hoz de Anero, Soto-Iruz, Santander, Donostia, Altzo, Zornotza... Portugal, Ameriketako hainbat nazio..., India, Malawi etab.

J. U.

⁵ Ik. *Acta Definitorii Generalis O.C.D., Congregationis S. Eliae...*, Roma 1984 (MHCT, Subsidia, 2) 256.